

## Antzinako azokak Lekunberrin

Datorren abuztuak 8an, beste urte batez, “Antzineko merkatuak” feria ospatuko da Lekunberrin, eta aurten ere, artisauek, kaleko animazioek eta antzerkiek antzineko garai batzuk ekarriko dituzte herrira.

Urtero bezala, biztanle guztiek Lekunberri herria Erdi arora bihurtuko duen festan hartuko dute parte. Herria heroi historiko, errege, epaile eta printzesaz, kalean egingo diren exorzismoez, hegazti harraparien ikuskizunez, malabaristez, titiriteroez, musikaz, dantzaz eta euren produkturik onenak eskaintzen dituzten artisauez beteko da. Lekunberrin denborak atzera egingo du Erdi Arora itzuliz.

Euren jantzirik onenak egun horretarako atera eta herriko txoko guztiak apainduko dituzte Lekunberritarrek, gainera, artisaunen salmahai deigarriak txukun kokatuta eta tentazio goxoak erakusgai izango dituzte (txokolateak, teak, almentrak, apaingarriak...), musikak, erromantzeek eta koblakarien zein trobadoreen jokoek erosketak giroko dituzten bitartean; hortaz, badakizue abuztuak 8an etor zaitezte Lekunberrira disfrutatzen.

